

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## NOGeko larrialdietako kirurgia multzoa jardunean hasi da berriz ere klimatizazioa eta instalazio elektrikoak berritu ondoren

*Lan hauen bitartez, esparruak handitu eta irisgarritasuna, segurtasuna eta eraginkortasuna hobetu dira, 360.000 euroko kostuz*

Asteazkena, 2018.eko irailak 12

Nafarroako Ospitaleguneko (NOG) Larrialdietako I. Kirurgia Unitatea osatzen duten lau ebakuntza-gelak jardunean hasi dira berriz ere asteazken honetan, udan instalazioetan egindako eraberritze-lanen ondoren. Jarduketa honen bitartez, klimatizazio sistema eta instalazio elektrikoaren zati bat berritu berritu dira, instalazioen irisgarritasuna, segurtasuna nahiz energia-eraginkortasuna hobetzea xede duten beste aldaketa batzuen artean.



NOGeko kirurgia multzoa jardunean hasi da berriz ere lanen ondoren.

Antzinako Nafarroako Ospitaleko A pabilioiaren beheko solairuan kokatuta dagoen kirurgia-multzo honek bi ebakuntza-gela ditu larrialdietarako, eta beste bi programatutako ebakuntzetarako. Egindako birmoldaketari esker, esparrua handitu da esterilizazioaren arloan eta biltegian eta profesionalentzako bulego bat sortu da, argiztapena hobetu eta bilera-gela berri bat sortzeaz gain. Dagokion garbiketa eta baliozkotze prozesua osatu ondoren, NOGeko profesionalek azken ukituak eman dizkiote aste honetan ebakuntza-gelak prestatzeko lanei, gaur arratsalde-iluntzean erabiltzeko moduan egin daitezten.

360.000 euroko inbertsioaz osaturiko erreforma-lan hauek kirurgia-unitate honetako klimatizazio-sistema eraberritzeko beharrak eragin du, 30 urtetik gorako adina baitzuen. Sistema berriak energia-eraginkortasun handiagoa eta malgutasun eta doitasun funtzional handiagoa eskaintzen ditu, baita emariak erregulatzeko aukera handiagoak ere. Teknologiarik aurreratuenaz hornituriko klimatizagailu independenteak ditu ebakuntza-geletan, 'Ospitaleetako airea egokitze instalazioak' erregulatu dituen UNE 100703 araua oso-osorik betetzen dela bermatuz.

254.000 euro inguruko kostua tarteko, klimatizazio sistema aldatzeko, lehengo ekipoak (hodiak, ur hotz eta beroaren sareak, erregulazio-sistemak, etab.) deskonektatu, desmuntatu eta kendu behar izan dira, sistema berria finkatu den solairuaren egitura indartu

(ebakuntza-gelen gainean) eta sistema instalatu, konektatu eta abian jartzeaz gain.

Horrez gain, esparru guztietako argiztapen orokorra berritu da, intentsitatea egokitzeko aukera ematen duen LED motako kontsumo baxuko beste argiztapen bat instalatuz (51.658 euroko kostuz). Era berean, mekanismo elektriko guztiak kendu eta aldagaiak lortzeko bermea eskaintzen duten serie modernoagoekin ordezkatu dira, lau ebakuntza-geletako elektrizitate-hornidura bermatuko duen Etengabeko Elikatze-lturria instalatzeaz gain.

Halaber, bi ate automatiko instalatu dira kirurgia-multzorako sarbidean (7.807 euroko kostuz), baita langile-txartelen bidezko sarbide-kontrola ere (3.913 euro). Horrekin batera, errei teknikoa ezarri da lau ebakuntza-geletan elektrizitate nahiz informatika harguneak eta gasen harguneak handitzeko, eta monitoreak ere instalatu dira lau ebakuntza-geletan anestesia lanetarako.

Jarduketaz profitaturik, inpermeabilizazio lanak, igeltsaritza nahiz pintura arloko zigilatze-lanak eta ateen egoera, hormetako babesak, ur eta lur harguneak eta zoruak zein altzariak ikuskatzeko lanak ere egin dira.

### **Kirurgia arloko hobekuntzak**

Erreforma honi, jarduera kirurgikoa modernizatu eta berrantolatzeko NOGan azken bi urteotan abiarazi diren beste neurri batzuk gehitu behar zaizkio. Horien artean, berariaz nabarmendu behar dira, besteak beste, [Pediatriako ebakuntza-gelen berrantolaketa](#), azken belaunaldiko teknologiaz hornituta abian jarri diren [NOG-Bko zortzi ebakuntza-gela berriak](#), [NOG-An irekitako bi ebakuntza-gela berriak](#), Kirurgia Handi Anbulatorioko (KHA) unitateak berritu eta handitzeko lanak eta Anestesia Ondoko Suspertze Unitateak (AOSU).



Bi profesional, erreformarekin handitutako kirurgia-multzoko esterilizazio-arlorako bidean.